



BARREN

TOKIKOM

eüskara

euskera

eskara

euskuera

uskerara

eskoara

oskara

euskiera

# EUSKARA GEU GARA!

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna





**Catotex izarak %100 kotoidunak edota koralinadunak!**

*Mila esker zuen konfiantzagatik!*

**Hotzari aurre egiteko modurik onena!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**ALDENIK ALDEN**  
2021eko ABENDUA

LH 4-5-6 eskaintza

**ABENDUAK 11**  
**LARUNBATA**

**16:00-19:00**

**Kultur Etxeko Sotoan**  
**DOAN**

**IZEN EMATEA: Azaroak 30 - abenduak 8**

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturgunea 3, 3 ezk.



PARTE HARTU NAHI  
AL DUZU  
ABENDUAREN 24 KO  
JAIAN?

*Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko ekintza*

**BERBALDIXA ETA ESKULAN-TAILERRA**



Atrutxamalka



Aldenik\_Alden



943741746



elgoibarko  
herri eskola

**BISITAK**

Deitu 943 899 178 zenbakira edo bidali mezu bat helbide honetara:  
[zuzendaritza@elgoibarhe.net](mailto:zuzendaritza@elgoibarhe.net)  
Abenduaren 14an, osteartea, 10:00 etan gaztelaniaz  
Abenduaren 16an, osteguna, 16:30 ean euskaraz



**Hurbildu eskolara, elkar ezagutu dezagun**



# azaroaren 22tik abenduaren 5era

LARA ETA XABIER ETXEGOIEN RODRIGUEZ, 9 eta 6 urte .....



***“Euskaraz egitean gurasoak zelan okertzen diren entzutea gustatzen zait!”***

Lara eta Xabierren gurasoak Uruguai-koak dira eta duela zazpi urte etorri ziren Elgoibarrera. Gurasoek batez ere gaztelaniaz egiten diete, baina, batzuetan, baita euskaraz ere. Larak esan digu berak

nahiago duela gurasoek euskaraz egiten badiote, “nola okertzen diren entzutea gustatzen zait! kar, kar, kar”. Hala ere, gurasoei lagundu ere egiten die. Euskaraz edo gaztelaniaz, zein hizkuntzatan hobeto moldatzen diren galdetuta, Larak dio bera hobeto moldatzen dela euskaraz; Xabier, berriz, gaztelaniaz. Herri Eskolako lagunekin euskaraz eta gaztelaniaz jolasten duela esan digu Xabierrek. Kaleko lagunekin, berriz, gaztelaniaz. Larak bere lagunekin, neskekin, batez ere euskaraz egiten du, baina mutilekin gaztelaniaz egiteko ohitura dauka. Larak eta Xabierrek elkarri gaztelaniaz egiten diote. Gurasoek haien lagunekin gaztelaniaz egiten dutela esan digu Larak, baina parean bizi diren bizi-lagunekin euskaraz egiten dutela.

PAULE ETA ANE ANSOLA GIL, 4 urte eta 8 hilabete.....



***“Gurasoek euskara, aitxixak gaztelania eta amamak frantsesa”***

Paulek lau urte dauzka eta zortzi hilabete Anek. Paulerekin egon gara eta esan digu etxean euskaraz egiten dutela, eta gurasoek ere euskaraz egiten dutela haien artean. Ondo baino hobeto moldatzen da euskaraz Paule, baina

gaztelaniaz ere badaki apur bat, aitxixak erakutsita. Ikastolako lagunekin euskaraz egiten du, baina kalean gaztelaniaz ere jarduten du lagun batzuekin. Euskal Herritik kanpora oporretan joaten denean ere ondo moldatzen da gaztelaniaz. Paulek esan digunez, bera ahalegintzen da aitxixari euskara erakusten. Amama Eloisak, berriz, frantsesezko kantak kantatzen dizkio, eta frantsesa erakusten dio. Baina ez da hor amaitzen Paulek hizkuntzekin daukan harremana: ikastolan ingelesa ikasten hasi da. Aita eta ama ere entzuten ditu oporretan ingelesez berbetan, eta orain, noizean behin, gurasoekin praktikatzen du. Lau urte eta lau hizkuntza. Martxa honetan Paulek ez du arazorik izango Euskal Herrian euskaraz bizi eta munduan hara eta hona ibiltzeko.

TERESA INES ROLDAN ETXEGIBEL, 6 urte .....



***“Amatxok euskaraz egiteko esaten dit, lagun artean gaztelaniaz egiten dugulako”***

“Amatxorekin pasatzen dut denbora gehiena, eta berarekin euskaraz hitz egiten dut. Aitaxok ez daki euskaraz, ulertzen du, baina ez du hitz egiten, eta harekin gaztelaniaz egiten dut. Aitaxok eta amatxok ere euren artean gaztelaniaz egiten dute. Batzuetan saiatzen gara guk euskaraz hitz egin eta aitaxok gaztelaniaz erantzuten, baina zaila da, errazago moldatzen gara gaztelaniaz. Nire neba Telmo eta Alexekin euskaraz egiten dut, eta berarekin euren artean batzuetan egiten dute gaztelaniaz, baina gehiena euskaraz. Amatxok askotan esaten dit euskaraz hitz egiteko, lagun artean gaztelaniaz egiten dugulako. Nire lagun batzuen gurasoek ez dakite euskaraz,

eta lagun horiekin asko egiten dut gaztelaniaz. Amatxok ere gaztelaniaz egiten du guraso horiekin. Beste lagun baten ama euskara ikasten ari da, eta nire ama saiatzen da berarekin euskaraz egiten, baina zaila egiten zaie”.



ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ

Portu, Ubide eta bideetako ingeniaria

## Entropia eta erropia

tata. Izan ere, errazena erropak erantzi eta edonon lagatzea da. Umeak ez dira konturatzen etxean erabiltzaile gehiago daudela. Ondo iruditzen zaie horrela.

Horri buelta eman nahian arkitektura eta berdintasun formakuntza saio batean ikasitakoak jarri ditugu abian erroparen zirkuitua optimizatzeko. Bai, ondo irakurri duzu, erroparen zirkuitua: erropa jantzi, zikindu, erantzi, garbitu eta gorde. Erantzi eta garbitu tarte horretarako giltzarri diren bi armairutxo jarri ditugu sukaldean, garbigailuaren ondo-ondoan. Garbitzeko zain dagoen erropa zikina, zuria eta koloreduna, lagatzeko. Txiki-txoak antza ulertu du ideia eta hasi da bere erropatxo zikina bertara botatzen, anaiei segika.

Kalean ere entropia da nagusi da. XX. mendeko hirigintzak bere erara ordenatu zituen gure espazio publiko eta pribatuak. Ordena ezarri nahian, jarduera gune banatuak sortu ziren eta pertsonen betebeharrak asebetetzeko ibilgailuek beren tokia hartu dute. Eta ibilgailuen zirkuitua ez da txikia. Tamalez sakabanatuta dauzkagu kalean, ia edonon, lekua hartzen ordena jakin batekin baina bestelako beharretarako oztopo direla konturatu gabe. Gure etxean semeen kantzontzilo eta bestelako erropak nola, halaxe autoak gure kaleetan.

Honen harira irakurri berri dut ordena falta hori eraldatzeko Donostiako Udalak "bla, bla, bla" alde batera laga eta apustu ausarta egin duela. Eta gure herrian zer?

**E**ntropia hitza grekotik dator, eta bilakaera edo eraldaketa esan nahi du. Entropiak sistema baten askatasunaren eta desorden mailaren neurri erlatiboa ematen du. Horrez gain, adierazten du ez dagoela alde zuretik jakiterik nolako antolaketa modu berriak sortuko diren energia askapenetik. Zentzu zabalean, sistema baten ordenarik ezaren neurria dela esan daiteke.

Gurean entropia da nagusi: semeen zapatila, kantzontzilo, galtzerdi eta bestelakoak edonon aurkitu ditzakezu bo-

*"Gure etxean semeen kantzontzilo eta bestelako erropak nola, halaxe autoak gure kaleetan"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Sustatzearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ OHARRA

Kontzezio Egunekeo jai zubia dela-eta, datorren astean ez dugu BARREnik kalera-tuko. Hurrengo alea abenduaren 17an jasoko duzue.

BARREN

### ▶ EUSKARAREN EGUNA

Gaur abenduaren 3a dugu; Euskararen Nazioarteko Eguna. Egun berezia euskara geure bizitzako ardatz dugunontzat; eta bestalde, gure nortasuna aldarrikatzeko eguna ere bada. Hain zuzen ere, urteroko tradizioa berreskuratuz, helburu horrekin bildu gara hemen Elgoibarko Batxilergoko ikasle guztiok; euskarak euskaldun guztioi eman diguna eskertzeko.

Momentu batez pentsa dezagun zer izango ginatkeen gure hizkuntza gabe, euskara gabe. Izan ere, komunikabide bat galtzeaz gain, gure kulturaren muina galduko genuke. Hortaz, gaurko honetan hain garrantzitsu izango diren euskal musika nahiz dantzak adibidez, ez lirateke posible izango. Oskorrik zioen bezala, ez ahaztu 'euskara dela euskaldun egiten gaituena'.

Zaindu dezagun gure gizartean milaka eta milaka urtez iraun duen hizkuntza eta baita honi esker euskaldun guztiok eskuratu dugun kultura eta nortasuna ere.

Horretarako denok eskutik heldu eta euskarak emandakoa aldarrika deza-

gun. Bai gaur eta baita beste 364 egunetan euskarak gure ezpainak laztandu ditzala!

**Arreiturere BHlko Batxilergoko  
Euskara Batzordea**

### ▶ MURRIZKETAK OSAKIDETZAN

Duela bi hilabete, larrialdietara joan ondoren, Mendaroko ospitalean ingre-satu ninduten. Handik egun gutxira, antibiotikoak zainetik hartu behar nituenez zenbait astez, ospitaleratzearekin jarraitzea erabaki zuten sendagileek, baina nire etxetik. Denbora horretan langile guztiak, bai larrialdietakoak, ospitalekoak eta etxez-etxeko zerbitzuetoakoak, ezin hobek izan ziren. Benetako profesionalak, uneoro konfidantza eta segurtasuna eman zidatenak. Hemendik nire esker ona zuen profesionaltasun eta gizatasun handiagatik.

Etxean, konektatuta nengoen aparatuek behar nuen antibiotikoa ematen zidan zortzi orduro. Medikua goizero pasatzen zen eta, gainera, telefono zenbaki bat eman zidaten arazorik izanez gero, deitzeko. Eta hemen hartu nuen ezusteko desatsegina, izan ere, jakinarazi zidaten arratsaldeko 20:00etatik goizeko 8:00etara, telefono hartara deituta azpikontratatu-tako enpresa batek ematen zuela zerbitzua, ez beraiek.

Osasun publikoan murrizketa ekarriko duen neurri horrekin ados ez nagoela adierazteko balio izan dezatela lerro

hauek. Harrigarria da, kalitatezko zerbitzua eta profesional handiak ditugunean, Osakidetza-ren pribatizazio partziala dakarten neurri hauek hartzea.

E.G.P.

### ▶ JUBILATUEN OMENEZKO ASTEA

2021eko Jubilatuen Omenezko Aste-ean egitarau osoa eraman ahal izan dugu aurrera, bazkideen parte-hartze onarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu aurten ere, dena oso ondo iriteten lagundu duguten lagunei. Bereziki eskertzekoa izan da katekisten taldearen lan bikain eta alai-a. Txokolate goxo-goxoa prestatu zuten eta egun jendetsuetan banatzen aritu ziren. Aurten ekitaldiak mugatuagoak izan diren arren, pertsona askoren laguntza borondate-sua jaso dugu, eta denentzako doa hemendik gure esker ona: Udala eta San Bartolome Parrokiako lagunak, zabal-kundean lagundu digun prentsa; BARRENEko denak, Aitor Zabala (Diario Vasco) eta Jabi Leon (Noticias de Gipuzkoa), eta biltokiko tabernako Pedro eta Manoli. Guztion ahalegina oso beharrezkoa izan dugu.

Datorren urtean ia gure arteko anaitasuneko, kulturako eta aisialdirako ekitaldiak, bereziki bazkari erraldoi eta alai-a egiteko aukera izaten dugun, eta bikote askoren zorioneko urrezko ezteiak ospatzen ditugun. Aurten lau bikotek jaso dute urrezko ezteiak egiteagatik omenaldia.

**Elgoibarko Jubilatuen  
Biltokiko zuzendaritza**




## Pakita Kalzakorta Sololuze

2021eko azaroaren 26an hil zen, 97 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Inoiz ez dugu ahaztuko zuk emandakoa.  
Negarrik ez, agurrik ez, muxu bat amona.**

Etxekoak





I. URTEURRENA

## Juan Cruz Gabilondo Muguerza

2020ko abenduaren 10ean hil zen, 92 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, eguaztenean,  
abenduaren 8an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



IV. URTEURRENA

## Asensio Urbieta Uranga

2017ko azaroaren 30ean hil zen, 81 urte zituela.  
**Gure oroimenean bizi zaren artean, betiko izango zara gure bihotzetan.**  
Etxekoak



## Angel Gurrutxaga Askasibar

**Handia da egunotan  
bizi dugun nahigabea.  
Zure ondoan hazteko  
izan dugu ohorea.  
Langile nekazina  
ta aita ezinhobea.  
Maitasunez bete duzu  
familiaren sarea,  
bizirik mantenduko da  
gugan zure ondarea.**

2021eko azaroaren 25ean hil zen,  
87 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak, bai eta hileta  
elizkizunetara agertu izana ere.

Etxekoak



## Javier Mujika Suarez

2021eko abenduaren 1ean hil zen, 76 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Betirako izango zaitugu gogoan.**

Etxekoak



## Mendaroko Udalak 3.051.998 euroko aurrekontua onartu du 2022rako, aurtengoa baino %10,42 handiagoa

Mendaroko Udalak joan zen asteko Osoko Bilkuran onartu zituen 2022rako aurrekontuak, EAJ-PNV eta PSE-EEren (6) aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin (5). Hortaz, 3.051.998 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2022rako, iaz baino %10,42 handiagoa. Hirigintza atalera bideratu dituzte 1.133.170 euro, (%37,13), Antolakuntza atalera 727.157,50 euro, (%23,83), eta Herriartasunera 1.191.670 euro, (%39,04). Kulturarako 659.640 euro gorde dituzte eta Gizarte zerbitzuetara 532.030 euro. Iñaki Arregi alkateak esan du aurrekontu hauetara herria berrakituz jarraitu nahi dutela, mendaroarrak erdigunean jarriz, ongizatea bermatuz eta garapen sozial, jasangarria, ekonomikoa zein kulturala bultzatuz.



### EH Bilduren abstentzioa

EH bilduk abstenitzearen arrazoiak eman ditu, eta besteak beste, aipatu du Udala Gobernuarenak baino, oposizioarenak gehiago direla onartutako aurrekontuak: "Udal Gobernu honek ideia berri gutxi aportatzen du, baina besteak norbere onurarako erabiltzeko bizkor ibiltzen da beti". Horrez gain, salatu dute aurrekontuak itxita eta negoziatzeko aukerarik gabe aurkeztu zizkietela azaroaren 2an, 20 egun "eskaseko" epean hiru milioi euro nola kudeatu erabakitzeko. Dena dela, adierazi dute EH Bildutik egindako hainbat proposamen sartu dituztela Udala aurrekontuetan nahiz eta beraiek proposatutakoa baino kopuru txikiagoak onartu dizkieten gehienetan. Hala ere, argi dute horrek ez duela bermatzen proiektuak aurrera eramango direnik: "esperientziak esaten digu, hauetako proiektu asko bete gabe geratzeko arriskua dagoela".

### 394.949 euro inbertsioetarako

- Bake epaitegia: 10.000 €
- Informatika prozesuetarako ekipoak: 5.000 €
- Kultur etxerako altzariak: 2.000 €
- Kultur ekipamenduak: 1.000 €
- Gazte Plana: 8.000 €
- Azpiliketako kultur etxea: 1.700 €
- San Agustin: 1.700 €
- Haurreskola: 1.700 €
- Ikastola: 1.700 €
- Liburutegia: 3.000 €
- Landa zentro anitza. Eraikinen hobekuntza: 7.000 €
- Hirigintzako obra txikiak: 20.000 €
- Auzoetako hobekuntzak: 20.000 €
- Irisgarritasuna: Ospitalerako igogailua: 30.000 €. 900.000 euroekin finantzatu da, gerakinetik.
- Landa guneak: 150.000 €
- Hilerriko obrak: 10.000 €
- Baliabide energetiko berriztagarriak: 1.000 €
- Brigadaren ibilgailua: 60.000 €
- Brigadako erremintak: 3.000 €
- Landa lurren mugaketak: 18.149 €
- Biltegiarako altzariak: 5.000 €
- Etxebizitzetako obren dirulaguntzak: 35.000 €


### 196.000 euro dirulaguntzetarako

- Gazteei etxebizitzak alokatzeko: 3.000 €
- Eskolaz kanpokoetarako: 1.500 €
- Zaintzarako: 2500 €
- Begirale-hezkuntza bekak: 600 €
- Euskaltegiko ikasleentzat: 5.000 €
- Gazte promesentzat sariak: 600 €
- Lokal komertzialak irekitzeko: 2500 €
- Ekingune: 700 €
- Enplegu sustapenerako: 60.000 €
- Don Angel beka: 8.000 €
- Jubilatuen elkarteko ekintzak: 3.000 €
- Auzo taxia: 5.000 €.
- Etxebizitzetako obretan laguntzak: 35.000€
- Jai batzordeentzat: 3000 €
- Guraso elkarteari: 5.000 € eskola kirola, 2.600 haurrentzat ekintzak.
- Musika eskola: 28.000 €
- MTE: 5.000 €
- Pilota eskola: 300 €
- Kilometroak: 300 €
- Korrika: 1200 €
- HABE Euskaltegia: 6.000 €
- Elgoibargo Izarra, Barren: 15.000 €
- Proyecto Hombre, Atzegi, Odol Emailak, Deparkel eta Katu Beltz elkarteentzako: 2.250 €

## Asteburuko euriteen ondorioz Deba ibaiak gainezka egin zuen hainbat puntutan

Uholde arriskuagatik larrialdi plana indarrean jarri zuen Jaurleri-tzak zapatuan, eta, euri eta elur denboralearen eraginez, zenbait ibai bere artotik irten ziren asteburuan, horien artean Deba ibaiak. Domeka eguerditik aurrera espero zen unerik kritikoa. Izan ere, domeka arratsaldetik aurrera elur kota igoz joango zela iragarri zuen Euskalmetek, eta pilatutako elurraren kopuru bat urtzearen ondorioz, egunaren bigarren zatian uholdeak izateko arriskua handituko zela. Eta halaxe izan zen: Beste behin ere, gaua luzea izan zen Mendaroko Garagartza eta Trinitate kaleetako bizilagunentzako, ura bere bidetik irten zelako Abarketeroneko parean, Kilimon erreka eta Deba ibaiak bat egiten duten puntuan, hain zuzen ere. Ondorioz, urak hartu zuen Garagartza auzoko punturik baxuena, Trinitate kalea. Suhiltzaileak ibili ziren goizaldeko 3:00ak arte ura xukatzen, baina alperrikakoa izan zen. Elgoibarren ere izan zuen eragina euri denboraleak, eta Maltzaga eta Andikano arteko bidegorria itxi egin behar izan zuten, zenbait puntutan urak gainezka egin zuelako. Altzolan ere egin zuen gainezka ibaiak, Alzola Basque Water enpresa parean, Bainuetxeko Zumardia kalean.

Ibai ingurutik kanpo ere eduki zuen eragina denboraleak. Domeka goizean luizi bat izan zen Azkaraterako bidean eta suhiltzaileak eta Foru Aldundiak bidalitako beharginak ibili ziren bidea libratzeko lanean. Sallobente bailarako baserri bide batera eroritako zuhaitz bat tratatik kentzera ere etorri ziren suhiltzaileak.



## Emakumeek jasaten dituzten indarkeria mota guztiak salatu zituzten Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan azaroaren 25ean

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna izan zen azaroaren 25a, eta 'Indarkeria matxistarik gabeko bizitza' aldarrikatu zuten egun horretan milaka herritarrek Euskal Herriko herrietan. Euria gogotik egin zuen arren, Elgoibarren eta Mendaron ere bat egin zuten egun horretako aldarriarekin: Narrutsik taldeak antolatutako manifestazioa Maalatik hasi zen eta Kalegoen plazan bukatu zuen ibilbidea. Segidan, Elgoibarko Udalak antolatutako elkarretaratzera batu ziren guztiak, Uluka batukadaren doinuek lagunduta. Manifestua irakurri ostean, lurrean zeuden kandelak banan banan hartu zituzten bildutakoek, eta Aita Agirre eraikinaren arkupeetaraino joan ziren manifestazioan. Han, 37 zenbakia osatu zuten kandelekin, urtea hasi zenetik 37 emakume hil dituelako indarkeria matxistak Espainian, Berdintasun Ministerioaren zifra ofizialen arabera. Mendaron bestalde, Zapata Gorriak ekimena egin zuten frontoian, Tratu Onen taldeak antolatuta, eta asteburuan *Evaren alabak* antzerkia taularatu zuten.



## Ekintzaileentzako dirulaguntzak emango ditu Lanbidek

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileentzako dirulaguntzak emango ditu, Debegesaren bitartez. 30 urtetik beherako gazteei eta emakumeei arreta berezia eskaini dietela zehaztu dute, eta horientzat dirulaguntza handiagoa izango dela. Onuradunek jasoko dituzten dirulaguntzak ondorengoak dira:

- Enpresa-idea garatzeko: 30 urte edo gehiago dituzten gizonezkoentzat 1.000 euro eta emakumezkoentzat 1.150 euro; eta 30 urte edo gutxiago dituzten gizonezkoentzat 1.150 euro eta emakumezkoentzat 1.300 euro.
- Enpresa-proiektuak martxan jartzeko: 30 urte edo gehiago duten gizonezkoentzat 1.500 euro eta emakumezkoentzat 1.725 euro; eta 30 urte edo gutxiago dituzten gizonezkoentzat 1.725 euro eta emakumezkoentzat 1.950 euro.

Eskaerak Debegesako bulegoetan egin behar dira, abenduaren 10a baino lehen. Bulegoa goizeko 9:00etatik 16:00etara egoten da zabalik. Informazio gehiagorako: [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) / 943 820 110 / [ekintzaitelza@debegesa.eus](mailto:ekintzaitelza@debegesa.eus)

### Lila emakumeen etxea bisitatu dute Herri Eskolako ikasleek

Herri Eskolako zuzendaritzako kideek eta LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleek Lila Emakumeen Etxea bisitatu dute estreinakoz. Maialen Gurrutxaga Berdintasun zinegotziak eta Mikel Etxaniz alorreko teknikariak egin zieten harrera joan zen barikuan, eta azpiegitura ezagutzeaz gain, Lilaren funtzionamendua ezagutzeko aukera ere izan zuten. Berdintasun Sailak urtero ikastetxeekin lantzen duen Hezkidetza proiektuaren baitan egin dute bisita. Hezkidetza proiektua sexuen arteko berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritzen den hezkuntza da, genero estereotipoetatik kanpo egiten dena. Herri Eskolakoekin bezala, Udaleko Berdintasun Sailak herriko gainontzeko ikastetxeei Lila aurkezteko asmoa du, hala nola, Elgoibar Ikastolari, Mekari, Elgoibar BHLri eta EPArri.



### Elgoibarko eta Mendaroko 23 odol emaile omendu dituzte



Gipuzkoako Odol-Emailen Elkarteak antolatuta, Gipuzkoako odol-emaiak omendu zituzten domekan, eta horien artean, 19 elgoibartar eta lau mendarotar. Pandemia dela-eta, oraingoan ere herriz herri egin dituzte odol-emaiak omentzeko ekitaldiak. Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian egin zuten odol-emaietarako aitortza egiteko ekitaldia, eta Mendaron Goñati pilotalekuan. Hauek izan dira aurtengo omenduak: Iñigo Ariztondo, Iker Arrillaga, Ivan Conde, Aitor Etxeberria, Santiago Gonzalez, Gorka Intxausti, Jose Manuel Rodriguez, Fernando Rodriguez, Juan Cruz Sasiain, Ainara Uranga, Alexander Valero eta Andrea Zubiaurre (25 aldiz). Olatz Fuente (40 aldiz). Benito Atrio, Fernando Mendez eta Xabier San Martin (50 aldiz). Eloisa Irureta eta Lourdes Uranga (60 aldiz). Jesus Alvarez (75 aldiz). Mendaron, ondorengoak: Jaione Zabala Ganuza (40 aldiz). Asier Arriola eta Javier Leira (50 aldiz) eta Cecilio Manteca (75 aldiz).



# Mendaro berriro euskararen arnasmune bihurtzeko ahalegina

**Euskararen erabilera sustatzeko ahaleginetan ari dira Mendaron eta euskal hiztunengan eragiteko ekintza ezberdinak antolatu dituzte Arno Guraso Elkartek, UEMAK, eta Udalak elkarlanean. Besteak beste, herriko hiru kuadrillatan 'Eusle' egitasmoa jarri dute martxan, hizkuntza-ohituretan eragiteko, eta Mintzapraktika egitasmoa martxan jartzeko deialdia ere egin dute. Horri lotuta, euskararen kale erabilaren emaitzak ere zabaldu dituzte: Euskararen ezagutza %70 ingurukoa da, eta erabilera, %43,9koa.**

- AINHOA ANDONEGI -

Mendaro herria UEMAn sartuta dago, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Horretarako bi baldintza bete behar dira: batetik, euskararen indizea gutxienez %70ekoa izan behar da, eta hori kalkulatzeko euskaldunen kopurua eta ia euskaldunak direnen erdia batuz. Horrez gain, beharrezkoa da Udalak herrian euskararen normalizazioan lan egiteko prestutasuna agertzea. Euskararen Mahaia sortu dute Mendaron, eta talde horretan daude besteak beste herriko hainbat euskaltzale, Udaleko ordezkariak, UEMAKo teknikaria, Ikastolako ordezkariak eta Arno Guraso Elkarteko ki-deak. Elkarlanean dihardute Mendaro euskalduntzeko ahaleginean, eta horri lotuta, azken kale neurketaren datuak eman berri dituzte. Kale neurketa behaketa sistema bidez egiten da. Soziolinguistika Klusterrak eta UEMAK elkarlanean egiten dute behaketa hori, lan horretarako zehazki prestatutako pertsonen bidez. Modu anonimoan behatzen dituzte herritarren portaerak, eta behaketa prozesu horretan jasotako informazio hori guztia biltzen dute. Aurten 6-8 euskaltzale aritu dira behaketa lanetan, eta lau mila lagunetik gora behatu dituzte. Arduradunek esan dute ikerketak  $\pm 2,5$ eko akats tarteak daukela, beraz, datuak "fidagarriak" direla. Era berean, ez dute nahi izan aurtengo datuak aurreko urteetakoekin alderatzea, izan ere, aurrekoetan erabili zuten lagina askoz txikiagoa zen, eta ez zaie iruditzen datuak alderagarriak direnik. Hortaz, azken ikerketan jarriko dugu begia, Mendaroren euskalduntasun maila zein den jakiteko. Atera dituzten ondorio nagusien artean esan

dute ezagutzatik urrun dagoela erabilera Mendaron. 10etik zazpi euskaraz dakite edo ulertzen dute behintzat, baina erabilera, aldiz, %43,9koa da. Beraz, hamarretik zazpi dakite euskaraz, baina lauk erabiltzen dute, ia erdiak. Adin tarteari dagokionez, berriz, 2 urtetik 14 urte arterako gazteek egiten dute gehien euskaraz (%53,4) eta horren atzetik 40tik 64 urtera artekoek (%47). Gutxienez, 15 urtetik 24ra bitarteko gazteek erabiltzen dute: %23,7.

|            |         |
|------------|---------|
| 2-14 urte  | % 53,40 |
| 15-24 urte | % 23,7  |
| 25-39 urte | % 44,90 |
| 40-64 urte | % 47    |
| > 65 urte  | % 35,90 |

## Herriak euskaldunago egiteko ekimenak

Datuak aurkeztearekin batera, Mendaro herri euskaldunagoa egiteko hainbat gomendio eman zituzten, gainerako herrietarako ere balekoak direnak: telebista, irrati eta prentsa edo liburuak euskaraz kontsumitzea, dakienari euskaraz hitz egitea, bai eta euskaraz eroso hitz egiteko guneak sortzea ere. Baina horrez gain, hizkuntza ohituretan eragitea da garrantzitsuena, eta asmo horre-

kin *Eusle* programa jarri dute martxan Mendaron, herriko hiru kua-drillatan. Azaroaren 15ean hasi zuten, eta abenduaren 15era bitartean iraungo du ariketak. Egitasmoak taldearen oniritzia behar du martxan jartzeko, eta gutxienez taldekideen %80k eman behar diote baietza egitasmoari. Talde naturala izan behar da, eta taldekide guztiek ulertu behar dute euskaraz. Taldeak aukeratuko ditu eusleak, eta horretarako prest egon beharko dute. Euslearen zeregina izango da beti euskarari eustea, hizkuntzaz aldatu gabe.

Horrekin batera, *Mintzalagun* programa ere aurkeztu zuten eta egitasmoan parte hartuko dutenen izenak batzen ari dira (interesa dutenek [arnogurasoelkarte@gmail.com](mailto:arnogurasoelkarte@gmail.com) helbidera idatzi behar dute, izen-abizenak eta telefono zenbakia zehaztuta). Euskaraz praktikatu nahi dutenentzako ekimena da hau, eta taldean egiten da. Bidelagun eta bidelariak elkartzen dira, euskaraz jarduteko. Programa honen parekoa da Elgoibarren egiten den Teruliak egitasmoa. 2001ean jarri zuen martxan Elgoibarko Izarrak *Arigera* proiektuaren barruan, herriko bi euskaltegiekin elkarlanean, eta aurten 35 lagun ari dira parte hartzen, 7 taldetan banatuta. 7 bidelagun eta 28 bidelari batzen dira astean ordubetez, euskaraz hitz egiteko.

### Elgoibarren: 'Haurren aurrean, helduok heldu'

'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimena jarri du abian Euskaltzaleon Topaguneak helduen eredugarritasuna sustatu eta hizkuntza praktiken inguruan hausnartzeko, eta Elgoibarren ere heldu diote ariketa horri. Elgoibarko Izarrak, Udalak, Ikastolak, Herri Eskolak, Haurreskolak eta Ludotekak elkarlanean dihardute egitas-

moaren antolakuntzan, helduak umeen aurrean dituzten hizkuntza ohiturak aldatzeko. 0 eta 12 urte arteko umeekin harreman zuzena duten helduen arteko hizkuntza-praktikak aldatu eta euskara gehiago erabil dezaten prestatu da aktibazio egitasmoa, eta gaur bukatuko dute ariketa, horretarako propio prestatu duten ekitaldiarekin. Gurasoak eta umeak batuko dituzte Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, eta gurasoek hainbat konpromiso hartuko dituzte seme-alabak aurrean direla. Sei izango dira gurasoek hartuko dituzten konpromisoak, eta euskaraz ez ezik, gaztelaniaz eta arabieraz ere irakurriko dira. COVID neurriak direla-eta, ekitaldia ez da jendearentzat irekita egongo, baina dokumentua sarean egongo da, bertan esaten denarekin bat egiten duten gurasoek agiria sinatzeko aukera izan dezaten.



## EUSKARAREN EGUNARI LOTUTAKO EKITALDIAK

Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur, euskara gogoan hartzeko eguna, eta hala egin dute Euskal Herriko herri askotan. Elgoibarren eta Mendaron ere ez dira egun honekin ahaztu, eta euskara urte osoan erabiltzeko hizkuntza den arren, egun honi lotutako makina bat ekimen izan dira egunotan gurean.

Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, *Beltzean Mintzo* dokumentala eman zuten eguaztenean Musika Eskolako auditoriumean, eta segidan Jon Sarasuarekin solasaldia egin zuten.

Ameriketako zazpi hizkuntza komunitateren egoera erakusten du dokumentalak, eta beste zenbait konturen artean, beste hizkuntza gutxituetatik euskaldunok nola ikusten gaituzten izan zuten hizpide. Horrez gain, *Euskaldunon Egunkariaren* itxierari buruzko *Papezko hegoak* dokumentala emango dute gaur Herriko Antzokian, eta domekan eta eguaztenean umeentzako *Zutik* euskarazko filma.



Jon Sarasua, eguazteneko solasaldian.

Ikastetxeetan ere hainbat jarduera egin dituzte: Elgoibar Ikastolan, esaterako, Argitxoren antzerkia izan dute, eta baita ipuin kontalariak eta jolasak. Herri Eskolan, berriz, ipuin eta jolasez gain, Josefina sorginaren bisita izan dute haur hezkuntzako umeek, eta Arreiturre Institutuan lehiaketak, euskal kirolak, pintxo jatea, aurreku eta txistu saioa... Batxilergoko ikasleek, bestalde, Euskararen Egunerako propio prestatutako manifestua irakurri dute.

Mendaroko Ikastolan, bestalde, Euskararen Astea izan dute eta ez dira falta izan abestiak, jolasak, ipuinak eta bestelakoak, eta gaur, *Bainuetxea* antzezlanaren taularatuko du Taupada antzerki taldeak San Agustin kulturgunean. Arno Guraso Elkartetik, berriz, egitasmo berezia jarri dute abian abendurako, euskarari lotuta. Herriko 24 lagun elkarrizketatu dituzte, Eguberrietako ohiturak gaia emanda, eta asteazkenean ekin zioten grabazioak emititzeari, eguneko bat.

# Aurten baDa azoka

Abenduaren 3tik 8ra egingo da Durangoko Azokaren 56. edizioa; aurrez aurreko 220 stand eta online denda uztartuko ditu, 'baDA!' lelopean. Leire Urbeltz sortzaile iruindarrak egin du aurtengo kartela, 'Desipuindegia' izenburupean. Urbeltzek Azokako lehenengo edizioak izan ditu gogoan, garai horretako irudien *revivalismoa* eginez.



|| Aurten Azokarik bada? Askok egin digute galdera.

Bai noski, baDA!", iragarri zuen Gerediagako presidente Nerea Mujikak. 220 erakusmahai egongo dira abenduaren 4tik 8ra ikusgai. Azoka aurrez aurrekoa izango da, bai, baina Gerediaga Elkarteak hainbat neurri hartu ditu azoka Eusko Jaurlaritzaren osasun neurrietara egokitzeko. Landakon eta Plateruenean, Ahotseneko kontzertuetan, sartzeko aldeztatik izena eman behar da [durangoozoka.eus](http://durangoozoka.eus) webgunean eta azaroaren 29an hasi ziren zerrendarako izenak jasotzen. Landako gunean 1.200 bisitariko bost txanda izango dira egunero, ordu eta erdiko bisita egin ahal izateko. Barruan, maskara jarrita ibili beharko da, eta ezingo da ez jan ez edan. Online denda aurten ere martxan egongo da abenduaren 3tik 7ra izena emateko webgunean bertan.



## 50 kontzertu Plateruenean

Kontzertuei dagokierik, antolakuntzak iragarri du Ahotsenean 50 kontzertu eskainiko dituztela eta emanaldi guztiak Plateruenean izango direla, 11.00etatik 22.00etara bitartean. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztatik izena ematea. Horrekin batera, jakinarazi dute Ahotsene-

ako zuzenekoak zein Azokako Areto Nagusiko ekitaldiak webgunean ere jarraitu ahal izango direla *streaming* bidez.

Musika ez ezik, Durangoko Azokak diziplina askotariko egitaraua berreskuratuko du aurten: solasaldiak, proiektzioak, arte eszenikoak, umeentzako ikuskizunak, ekitaldiak...

Debarrenetako Komunikazio Taldeak (DKT) jasotako informazioaren arabera, aurten, bailarako idazle, musikari eta argitaletxeek ondutako 23 liburu eta disko baino gehiago izango dira azokan; tartean, eleberrak, poema liburuak, album ilustratu bat, itzulpenak, eta baita rock, folk eta jazz diskoak ere. Ondoko orrialdean dituzu horietako zenbait ale.

DKT: Drogeteniturri (Ermua, Mallabia), ...eta kitto! (Eibar), Pil-pilean (Soraluze), Barren (Elgoibar, Mendaro) eta Berriketan (Deba).

## DEBABARRENEKO UZTA

### DEBA-ITZIAR

- ♦ **Nerea Loiola Pikaza:** *Epizentroa* (Erein argitaletxea).  
Liburuaren aurkezpena: Abenduak 4 (larunbata), 17:00etan, azokan bertan.
- ♦ **Goizane Aizpurua Ibañez:** *Izarak* (Alberdania argitaletxea).
- ♦ **Iñigo Lopez Simon:** *Bilboko etxola batean* (Elkar argitaletxea). Debako Udalak eta Elkarrek antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua.
- ♦ **McOnak taldea:** *Bitakora* (Mauka Musikagintza).  
Abenduaren 6an Ahotsenea gunean (Plateruena) kontzertua.
- ♦ **Huntza taldea:** *Ezin ezer espero* (Mauka Musikagintza).

### EIBAR

- ♦ **Su Ta Gar:** *Sua komikia* (Alex Tello eta Julen Ribas).
- ♦ **Ibon Muñoa:** *Gure Ama-Lur feminista da* (Ataramiñe)
- ♦ **Bixente Martinez:** *Txoriak buruan eta ibili munduan*. Abenduaren 6an, Ahotsenean.

### ELGOIBAR

- ♦ **Jasone Osoro:** *Asteburu bat eskiatzen* (Goazen saila, Alai), *New York, New York!* (Goazen saila, Alai) eta *Festa* (Elkar).
- ♦ **Uxue Alberdi:** *HILI, album ilustratua* (Elkar).
- ♦ **Danele Sarriugarte:** *Walden* (Henry David Thoreau autorearen lanaren itzulpena, Katakarak) eta *Kapitalaren lan-tegi ezkutua* (Nancy Fraser filosofo estatubatuarraren lanaren itzulpena, beste hiru itzultzaileekin elkarlanean, Susa).
- ♦ **Ander Mujika:** *Orain entzungo duzun hau* (Bidehuts). Anariren diskoan kolaboratu du.

### ERMUA + MALLABIA

- ♦ **Txabi Arnal:** *Berta Berezi* (Erein argitaletxea) eta *Tatxani handiaren azken trukoa* (Elkar argitaletxea).

### SORALUZE

- ♦ **Ansorena & Senperena:** *Euskal Danbolinaren Aroak* (Gaztelupeko Hotsak).
- ♦ **Gorka Gaztanbide:** *Txikizio kuadrilla* (Gaztelupeko Hotsak).
- ♦ **Juan De Diego:** *Grebalariak* (Errabal Jazz).
- ♦ **Noa Lur, Ander Garcia:** *Gaur* (Errabal Jazz).
- ♦ **Aldapeko Basque Latin jazz:** *Iri barrenetik* (Errabal Jazz).
- ♦ **Plana, Forts, Viñolas:** *Nucli Trio* (Errabal Jazz).
- ♦ **Jon Urrutia:** *Piano Solo* (Errabal Jazz).





**Juan Luis Mugertza BARRENEKO kolaboratzaileak elur-hontza ikusi du, eta bere bizipenaren kronika bidali digu. Elur-hontzari buruzko albistea irakurri, eta haren bila abiatu ziren, zehazki non egon zitekeen jakin gabe. (Arg.: Juan Luis Mugertza)**

## Ezusteko bisita Asturiaseko kostan

- JUAN LUIS MUGERTZA -

**D**uela bi aste irakurri genuen *Berria* egunkarian elur-hontzena. Dirudienez, hiru ikusi zituzten, baina Kantabrian aurkitutakoa, oso ahul omen zegoen, eta hil egin zen. Beste biak, bata arra, bestea emea, Asturiasen omen zeuden, Gozón udalerrian-edo. Bihotzak bultzatuta, "Joango gara?", esan nion Edurneri. Izan ere, momentuan jabetu nintzen: *Joan, nora baina?* Horretarako, informazio zehatza behar, eta guk ez genuen inolako kontakturik, ezta laguntzarik ere. "Bai?, haraino joan..." Neuk ere ez nuen oso garbi ikusten 292 kilometroko bidea egitea, baina joan ezean... Gainera, darraionarentzat da ehiza, eta hori sinetsita...

Lehenengo eta behin, eguraldiari erreparatu genion, badaezpada. Gero, ostatua topatzen saiatu ginen, lekurik egokiena zein izan zitekeen gora eta behera txakurra garitan bezala ez ibiltzeko. Moniello hondartzaren inguruan ikusi zuten hontz bat, Peñas lurmuturrean. Hori larunbatean eta igandean. Ez astelehenan, ez asteartean, txori arrastorik ez zuten izan, eta guk astearte arratsaldean ospa egin nahi genuen, asteazkenean, goizean goizetik bazterrak arakatzeko. Eta horrelaxe joan ginen Luancora, tundrako eremu oso hotzetan, muturreko izotz eta elur baldintzetan, eta gizakirik ez dagoen toki basatietan bizi den elur-hontza (*Bubo scandiacus*) bilatzera. Halarik ere, ez genuen fede handirik izan

Iberiar penintsulan inoiz ikusi ez den espezie hori ikusteko. Izan ere, agertzen diren bezala, desagertu egiten dira. Etxera bueltatzeko milaka kilometro egin behar, eta ez dago jakiterik iritsiko diren, edo bidean hilko diren. Hemen beren bizilekutik at daude, galduta, herriminak jota, eta gugandik gertuen atzemandakoa, Frantzian, 2014an, Re uhartean ikusi zuten.

Ohera joan aurretik sare sozialetan, hontzen arrastoak topatzen saiatu ginen, baina... Ez genuen begirik bildu. Ezin izan genuen burutik kendu Asia, Amerika eta Europako iparraldean bizi den, urre begiak, hirurogei zentimetro altu, eta metro eta erdi zabal dituen, neguan migrazio laburra egiten duen, eta Harry Potterren sagan agertu zenetik horren ospetsua den elur-hontz maitagarria. Ipar Amerikan hontz artikoa esaten zaio, eta arrak ia osorik zuriak dira, emeek luma beltz zatiak dituzten bitartean. Gazteak direnean pikartak dira, zuri bilakatzen diren arte helduak izatean.

Oraindik ez omen dago jakiterik nola heldu diren Asturiasera. Dirudienez, batzuetan, barkuak ("ship assistant migration") erabiltzen dituzte atseden hartzeko, eta inoiz, bertan gelditzen dira pasaiarien bidaiaren zati bat gauzatzeko. Hori omen da hipotesi nagusia. Dena den, teknika berritzaile baten bidez (lumen isotopoen azterketa), aukera omen dago jakiteko Kantabrian hildako hontzak non eta zer jan duen, eta

horrek bere jatorria jakiten lagunduko du.

Croissantan ezarrian genuela irten ginen ostatutik. Sakelako telefonoan erreferentzia sartu, eta aukera asko buruan, Bañugues hondartzara abiatu ginen. Di-da batean, hondartza bazterrean pilatutako antxeta mokogorriei eta kaio hankahoriei erreparatutakoan, alde egin genuen, baten bat gure zain edukiko bagenu bezala. Zalantzatan izan ginen lehenago Verdicio hondartzara joan edo, han ikusi zutelako azken aldiz ar gaztea bi egun lehenago, baina, senak bultzatuta, Peñas lurmuturrera abiatu ginen. Edurnek, behin baino gehiagotan, polikiago joateko esaten zidan: *“Etxe bateko teilatuan egon daiteke”*. Urduri geunden, oso. Azkenean, ordu laurden bat egin ostean, hantxe genuen Peñas lurmuturraren itsasargia gure aurrean. Aparkalekuan autoa utzi, tramankulu guztiak hartu (argazki-makina, prismatikoak...), eta itsasoaren zabalerak eta labarrek ongi etorria eman ziguten. Bakar bakarrik geunden, eta mamuak ikusten. Non egongo ote dira gure moduko zoro horiek? Inor ez badago, seinale txarra. *“Nora egin? Ezkerrera? Eskumara? Hemen ez dugu hontzik ikusiko”, nik Edurneri. “Baina hemen gaudela aprobetxatu egingo dugu; hau ez da leku txarra izango pelagikoak ikusteko. Ea gabairik, edo zangarik ikusten dugun”*. Mintzagai bakarrik txoriak, baina ametsa elur-hontza.

Kataloxek behin eta berriro egiten zuten begietara, baina txilar-otea baino ez zuten aurkitzen. Baina... halako batean, ezin sinetsirik, hantxe genuen gugandik nahiko gertu, patxada ede-



rrean, inoiz guri begira, inoiz beste nonbaitera, sekula ahaztuko ez dugun ezker oneko txori eder gazte eme ikaragarria.

Itxura denez, beste batzuk gu baino lehenago izan ziren parajea arakatzen, baina aurkitu ez, eta arrapataka egin zuten alde Gijonera, baten batek hontz zuri bat bertako portuan zegoela zabaldu zuelako sare sozialetan. Gijoneko hontz arra, sarbidea debekaturik duen portuko gunean zegoen, urrutiegi argazkiak egiteko, antza. Ordubete baino gehiago izan ginen gure artikoko lagunaz goxatzen, bakar bakarrik, neskatxo bat saltaka etorri, eta handik ordu erdira berarekin batera jende andana ekarri arte. Handik aurrera bizi izandakoa penagarria izan zen: ehun lagun baino gehiago, nork baino nork argazkirik onena atera nahian, askotan gutxieneko distantzia gorde gabe, eta hontz eme gazte

gero eta ikaratuago. Sentsazio gazi-gezarekin alde egin genuen, telebistako kazetari batzuek nola aurkitu genuen galdetu eta gero. Halarik ere, sinetsi nahi dugu esker oneko txori maitagarri honek erakutsitakoak balio izango duela natura gehiago maitatzeko, eta zaintzeko.

*Elur-hontz emea Peñas lurmuturrean zegoela bolo-bolo zabaldu eta gero.*



EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,  
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,  
BISITA GIDATUAK...  
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.  
**Parte hartu nahi duzu?**



## Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.


Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

### Bisitak



Bisita librea, gidatua, audiogidarekin,  
taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua,  
enpresentzat, familientzat ...





## Antzinako ogibideak



Galtzar dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

## Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

## Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.



## Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabekoa, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa  
Elgoibar, Gipuzkoa  
[www.museoa.eus](http://www.museoa.eus)  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus)



## ▶ IBAN BARRENETXEA

ILUSTRATZAILEA ETA IDAZLEA

Iban Barrenetxea (Elgoibar, 1973) ilustratzailea eta idazlea da. Bere hirugarren eleberria idatzi eta ilustratu ostean, kalean da 'Andanzas de un flautista llamado Tristrás'. Lan klasikoetatik ideia bat edo beste jaso, eta abenturetan murgilduta ondo pasatu du itxialditik ateratzeko ihesbide bat izan baita liburua beretzat. Orain bere lanarekin jendeari ondo pasarazi nahi dio.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Arg.: Marta Raigoso

# “Ilustrazioak ez dira apaintzeko bakarrik, testuei zerbait gehitzen diete”

◆ **Zure testu eta ilustrazioak dituen hirugarren eleberria kale-ratu duzu. Baina aurrez beste makina bat testu ilustratutakoa zara, ezta?**

Bai, hiru eleberri horiez gain, beste lau lan badauzkat nik egingoak, ipuin luze edo nobela labur moduan izenda daitezkeenak. Beste batzuentzat ere ilustrazio asko egin ditut, batez ere klasikoak. Azaletarako ere, eta publizitaterako beste pare bat. Baina liburuen kontua galdu dut.

◆ **Askotan ilustrazioak ipuinekin edo umeentzako lanekin identifikatzen ditugu. Zureak ere halakoak al dira?**

Ez du zertan hala izan beharrik. Ni katalogatu naute klasikoak ilustratzeko estiloa duen ilustratzaile moduan. Klasiko ingeles asko ilustratu ditut, adibidez, Lewis Carrolen *Alicia*, Roald Dahlen liburu bat... Irakurle bezala klasikoak gustuko ditut eta baita ilustratzeko ere. Ilustrazioak ez ditut umeentzat bakarrik egiten, liburuak egiten ditut eta espero dut irakurleek aurreiritzirik gabe irakurtzea. Saiatzen naiz adinari erreparatu gabe istorioak kontatzen.

◆ **Umetatik gustatu zaizu marraztea?**

Gauza bat marraztea da eta ilustratzea beste bat. Ilustratzeak funtzio bat dauka, testu bati laguntzea askotan.

Nik txikitatik gustuko izan dut marraztea, bai, baina gero konturatu nintzen ez nuela marrazte hutsagatik egiten, beti istorioren batekin

lotuta marrazten nuela. Esaterako, abentura pelikulak ikusi ondoren, eszenak marrazten nituen eta beti narrazioarekin lotzen nituen. Orain klasikoetatik ezezik beste leku askotatik hartzen ditut ideiak, pelikuletatik, bideo jokoetatik, klasikoetatik...

◆ **Eta gaur egun zer da zuretzat ilustratzea: zaletasuna, bizioa, lana?**

Hontan gabiltzanontzat dena dela esango nuke. Barruan daragun zerbait da, pasio bat, baina bizibide moduan hartuz gero, lana. Nire kasuan istorioak testu eta irudi bidez kontatzeko modua da. Beharbada arraroa da ilustratzaile batek hau esatea,

baina pentsatu izan dut testuak ez duela irudirik behar, beraiek kontatzen dutelako dena, baina irudiak testuen osagarri dira. Horregatik ilustrazioak egiterakoan hori kontuan izan behar da: zer egin dezaket testu honi zerbait gehitzeko? Ez da apaintzeko bakarrik.

◆ **'Andanzas de un flautista llamado Tristrás' liburua kaleratu duzu. Zeri buruzko eleberria da?**

Nik idazten dudana guztia bezala abentura liburua da, magia eta fantasia jasotzen dituen. Ipuin tradizioaletan oinarrituta dago. Ez ditu *Edurne zuri* edo *Txanogorritxo* bezalako ipuinen erreferentziak, baina fantasia hori tradizioetik dator. Irakurleek ere esan didate txikitik irakurtzen zituzten liburu klasikoaren kutsua dutela. Sumatu dut umeentzako





literaturan baloreak erakusteko joera dagoela. Nireak, ondo pasatzeko liburuak dira, nahi dut irakurleek aurrera jarraitzea gero zer gertatuko den jakin nahi dutelako. Liburu honen protagonista da herriz herri dabilen flauta jole bat. Hiru atso aurkituko ditu eta bere amabitxiak direla esanda opariak emango dizkiote. Bere helmuga herensuge batekin borrokatzea izango da. Abiapuntua oso klasikoa da, baina gero pertsonaren abenturak kontatuko ditu liburuak.

◆ **Helduentzako liburuak gehienetan ez dituzte ilustrazioak izaten, ezta?**

Ez, baina azken urteotan argitaletxeak hasi dira ausartzen helduentzako liburuak ere ilustratzera, ikusi baitute horrek balioa gehitzen diela. Gaur egun dena hain digitala denean, liburu on bat, ondo editatua eta ilustratua edukitzeak irakurketaren esperientzia aldatzen du.

◆ **Zer eman dizu azken liburu honek?**

Oso ondo pasatu dut idazten. Konfinamendu sasoi horren ostean ihesbide bat izan zen niretzat eta jendeari ere liburuarekin ondo pasatzea opa diot.

◆ **Nola definituko zenuke zure ilustratzeko modua?**

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela dio esaerak, beraz, ikustea da onena. Zaila da definitzen. Estiloa ahotsa bezalakoa da benetan, nahigabe barrutik irteten den hori. Ikasi ahala garatu arren, ateratzen dena da estiloa.

◆ **Ilustratzaileak arkatz eta margoekin irudikatzen zaituzte, baina zuek ere egin duzue digitalera jauzia, ezta?**

Nik orain dena modu digitalean egiten dut eta eskuz egina balitz tinta markaren batzuk baino ez lukete hori agerian utziko. Cintiq tableta batean marrazten dut zuzenean, era oso naturalean. Niri asko gustatzen zait arkatzekin eta lumarekin marraztea eta batzutan materialarekin izaten den kontaktuaren falta sumatzen dut. Baina nire helburua ez da teknikarekin ondo pasatzea, buruan dudan irudi hori islatzea baizik, eta une honetan digitalekin ondo aritzen naiz.

*“Azken urteotan argitaletxeak hasi dira ausartzen helduentzako liburuak ere ilustratzera”*

◆ **Zuretzat zer da errazagoa zure liburuak ala beste norbaitek ilustratzea?**

Biak berdin. Beste batena ilustratu behar dudanean ere testu egokia aukeratzen ahalegintzen naiz, gero testu hori nirea izango balitz bezala barneratzen dut, eta gainera, presio handia sartzen diot nire buruari. Batzuetan nire testuekin ari naizenean pentsatzen dut besteren batenarekin errazago arituko nintzatekeela eta beste batzuetan alderantziz.

◆ **Ba al duzu bereziki ilustratzea gustatu zaizun libururik?**

Denak. Testu bat ilustratzeko baietza ematen badut testua gustatu zaidalako da. Bada liburu bat ilustratzea gustatuko litzaidakeena: *Las aventuras del barón de Munchausen*. Oso argi ikusten ditut irudiak eta espero dut noizbait egitea. *Alicia* ilustratzea zorte handia izan zen. Dickensena, Sherlock Holmesen bat... ere eginak ditut. Baina konturatzen naiz sarritu edo itzultzen dituzten liburuak nik idatzitakoak direla eta beharbada nire burua gehiago estutzen dudanez hobeto egingo ditut.

◆ **Beste zerbait baduzu esku artean?**

Bai, proiektu pila bat ditut. *Ozeko aztia* klasikoa ari naiz ilustratzen eta nire ipuinak ere beti dauzkat zain. Azken liburuaren promozioarekin ere banabil.

◆ **Artisten egoera ez omen da hain ona gaur egun. Ilustratzaileena?**

Horrelako lanbideetan egoera oso pertsonala da. Nire kasuan lan asko egin ditut; liburuak saltzen dira eta itzuli ere egin dituzte, esaterako, Japonen, Errusian, Italian, Brasilen... Polita da liburuak beste hizkuntza batean ikustea, letra japoniarrekin, adibidez. Sariak ere jaso ditut. Ez naiz idazle eza-guna, baina apreziatzen dute nire lana eta hori da gustatzen zaidana, nire lanak irakurtzea. Argitaletxeen aldetik goranzko joera dute liburu ilustratuek, baina ilustratzaileak pila bat gara eta guztiok ezin gara egoerarik onenean egon. Ni orain behintzat gustura nago.

**Ganau ona (edarra) izan: Ser buena pieza.**

*Gana(d)u ona zan haura! / Ganau edarra zan! / Ganau edarra dagok gure umia!*

## 2022ko egutegia eskura daiteke Aita Agirre kulturgunean eta HAZen



Kaleratu du jadanik Elgoibarko Udalak 2022rako egutegia, eta egutegirako argazki eta marrazki lehiaketetako saridunak jakitera eman dituzte asteon Udal ordezkariak eta epaimahaikideek. Elgoibarko baserrietako bizimodua, ohiturak eta lanak izan da aurtengo gaia. Argazki lehiaketan 32 herritarrek hartu dute parte, eta guztira, 126 argazki aurkeztu dituzte. Saridunak honako hauek izan dira: Sare Gurrutxaga, Sergio Nieves, Maria Exposito, Jose Ramon Cabrera, Clara Mejias, Alberto Gonzalez, Gurutze Ariznabarreta, Oier Ramos, Larraitz Zialtzeta, Maite Loiola; eta egutegi txikirako, Vicente Guinea. Saridunek 80 euroko erosketa-bonua jaso dute.

Marrazki lehiaketan LH5eko 132 ikaslek hartu dute parte eta hauek irabazi dute 30 euroko erosketa-bonua: Manex Galdos, Asier Diez, Aimar Vigara, Scarlett Avendaño Garazi Garmendia, Eider Gabilondo, Jare Juaristi, Ane Astigarraga, Unai Aizpurua, Jone Alegria, Axier Sagasta eta Yousef Taghi.

Udalak 6.500 egutegi txiki herri osoko postontzietan banatuko ditu; eta 3.500 egutegi handi Aita Agirre kulturgunean eta HAZen eskuratu ahal izango dira.

## Abenduaren 9an jarriko dituzte salgai Eguberrietako bertso saiorako sarrerak

Urteroko ohiturari jarraituz Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalaren lankidetzarekin bertso-jaialdia antolatu du abenduaren 28rako. Saioa 20:30ean izango da Herriko Antzokian. Aner Peritz Euzkitze, Oihana Arana, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Nerea Ibartzabal arituko dira bertsoan Uxue Alberdi gai-jartzailearen esanetan. Bertso saiorako sarrerak abenduaren 9tik 23ra bitartean jarriko dituzte salgai Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean duen egoitzan 12 eurotan (10 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek).

## 'Butterfly effect' familia antzerkia izango da datorren asteburuan

Abenduaren 12an, domekan, familia giroan ikusteko antzerkia izango da Herriko Antzokian, 16:30ean. *Butterfly effect* antzezlanaren egingo dute Asier Oruesagastik, Daniel Gomarak eta Aintzane Crujeirasek. Gizateriaren bilakaera kontatuko dute, sua sortu zenetik, espaziotik eta giza eskubideen aldeko borroketatik, baina modu berezian. Sarrerak *herrikoantzokia.eus* helbidean eros daitezke edo zapatuetan lehiatzen 18:15etik 20:45era, eta soberan geratuz gero, egunean bertan ere bai, lehiatzen. Haurren sarrerak 3,5 eurotan salduko dituzte eta gurasoenak 5 eurotan.



## Mendaroko ondare bizia jasotzeko grabazioak egin ditu Arno Guraso Elkartek eta abenduan zabalduko dituzte

Mendaroko Arno Guraso Elkartek herriko ondare bizia jasotzeko proiektua ipini du abian. Herrigintza, belaunartekotasuna, transmisioa, ahozketasuna eta euskarara dira landu dituzten gaiak eta adin eta ikuskera ezberdinetako 24 lagun batu dituzte, Eguberrien bueltako garai bateko usadioak, bizipenak eta gomutak jaso eta haien ahotik, ondorengoei emateko.

Abenduan, egunez egun, grabazioetako atal txiki bana zabalduko dute Arno Guraso Elkarteko webgunean (<https://arnogurasoelkartea.eus>), baina bilduko duten informazio guztiak gehiagorako ere emango duela uste dute elkarteok, beraz, beren esku dagoen guztia egingo dute, ondarea herritarren eskura jartzeko. Izan ere, uste dute "ikaragarritzko balio kulturala eta pedagogikoa duela, eskolan bertan nahiz eskolaz kanpo lantzeko".

Elkarteko kideek grabazioetan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiete egindako ahaleginagatik eta azaldu duten eskuzabaltasunagatik, "aurrekoen materiala seme-alaben eta atzetik datozen guztien eskura jarriko dutelako egunen batean guk gaur sentitzen duguna sentituko dutelakoan".

## Amak taldeak trikiti doinuz osatutako emanaldia egingo du abenduaren 10ean Herriko Antzokian

**A**laitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solanok osatutako Amak taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 10ean, 20:30ean, Herriko Antzokian.

Amak lau nesken izenen lehen letrekin osatuta dago, baina horrez gain, lauak amak direlako jarri diote izen hori taldeari. Izan ere, lau kideen trikiti eta pandero doinuak Euskal Herriko plaza askotan entzun ziren beraiek ama izan aurretik. 90. hamarkadako trikitiaren loraldian, ordura arte neurri handi batean gizonezkoena zen trikiti munduan lekua lortu zuten lau neska hauek ezezik beraiekin bikote modura jardun zutenek, eta baita beste hainbatek ere.

Urte batzuetan eszenatokietatik kanpo egon arren, musika beti gertuan izan dute laurak. Trikiti jaialdi baterako elkartu ostean, baina, gustura aritu zirenez, egitasmoarekin jarraitzea erabaki eta laurak batera 20 emanaldi egin zituzten Euskal Herrian barrena. Gehienbat bertsoak eskaini zituzten, bai beraiek aurrez sortutako kantuenak eta baita beste batzuenak ere. Pandero, trikiti eta lau ahotsek bat egin zuten oholtzan berriz ere trikitiari emakume ikutua emanez.

Orain lehen diskoa dute eskuartearen, beraiek sortutako zortzi abesti biltzen dituen. Disko horretako abestiak eskainiko dituzte kontzertuan, eta hitz eta doinu indartsuak entzun ahal izango dira bertan ahots goxoz lagunduta.

Kontzerturako sarrerak salgai daude jadanik 10 eurotan (Gazte txarteldunek hiru euro). Honako webgunean erosi ahal izango dira: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus), larunbatetan Herriko Antzokiko leihatilan izango dira salgai 18:15etik 20:45era.



## 'Luze edo motz' umorezko bakarrizketa egingo dute Lilan hilaren 16an



Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai *Luze edo Motz* ikuskizuna eskainiko dute abenduaren 16an, 18:00etan, Lilan. Binakako bakarrizketa gisa aurkeztu dute emanaldia, izan ere, bakarrizketa laburrak egingo dituzte, baina bata bestearekin jositak. Generoarekin lotutako hizketaldiak dira batez ere, "baina umorearen galbaetik pasata", beren aurkezpenean dioten moduan. Menopausia, gidatzeko teknikak, sexua... dira besteak beste landuko dituzten gaiak ikusleei barre eraginez eta ondo pasaraziz. Ikuskizunera joan nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute e-posta helbide honetan: <https://labur.eus/lila-ikuskizunak>

## Fractality death metal taldeak desegitea erabaki du

Elgoibarko eta Ermuko kidez osatutako Fractality musika taldeak amaitutzat eman du bere ibilbidea eta taldea desegitea erabaki dute. Iker Diego eta Patxi Zabaleta gitarra joleak izan dira taldeko elgoibartarrak, eta azken honek erabakiaren berri ematean, taldearekin izandako hainbat bizipen azaldu ditu: "taldekideekin abestiak sortzen, lokalean bolumena topera jarrita, Ekaitzen estudioan grabatutako maketa, aurrez miresten nituen zein ezagutzen ez nituen taldeekin jotzeko eta musika kañeroaren unibertsoan dabilen jendea ezagutzeko aukera...". 2012an eman zituen Fractalityk lehen urratsak eta 2017an Elgoibarren, Kultur Etxeko Sotoan ere eman zuen zuzenekoak. 2018an argitaratu zuen lehendabiziko disko laburra, *Demon* izenekoa.



## Joan Colomo kantautore kataluniarraren kontzertua antolatu du Sinuösek

Sinuösek antolatuta, abenduaren 10ean, Joan Colomo kantautorearen kontzertua izango da 23:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Zeidun, Moksha edo Unfinished Sympathy taldeetan parte hartutakoa da sustriak Nafarroan dituen kantautore kataluniarra. Talentu handiko artista 2009az geroztik ari da bakarlari gisa eta zazpi disko kaleratu ditu. Estilo fresko eta jostagarria eskaintzen du Katalunian egindako musika independentearen panoramari bizia eta forma emanez, eta umorea eta zentzu kritikoa dituzten kantuekin. Melodia hauskorak oso oihukagarriak diren leloekin nabarmentzen ditu hitz intimoak eta politikoak nahastuz. Azken diskoan rockaren kanonetatik aldentuta instrumentu akustikoak, orkestra-moldaketak edo zirku-kabareteroak baliatu ditu, beti melodia, harmonia eta konponketen maisu dela erakutsiz eta gustu eta musikaltasun onarekin konbinatuta. Bere ibilbideko doinuak eta azken lanekoak eskainiko ditu Elgoibarko kontzertuan.



## Jose Ramon Cabrerak bigarren saria eskuratu du 'Bidasoako Begiradak' argazki lehiaketan



Jose Ramon Cabrerak, Txingudi Merkataritza Guneak antolatutako Bidasoako Begiradak argazki lehiaketan bigarren saria eskuratu du. Hondarribian ateratako argazki batekin. Erosketa bonoetan 350 euroko saria jasotzeaz gain, lehiaketan parte hartu duten argazkilarien lanekin aurki Txingudiko 2022ko egutegia kaleratuko dute eta bere lana han ere izango da.

## 'Euskara zabalduaz lau haizeetara' esaldia, Euskararen Eguneko lehiaketako irabazle

Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin antolatutako Euskararen Eguneko Esaldi Lehiaketa Elgoibar ikastolako DBH2 A taldeak irabazi du. Txomin Artola abeslariaren *Aberriaren Mugak* abestitik jasotako *Euskara zabalduaz lau haizeetara* esaldia aurkeztu dute. Elgoibar ikastolako eta Elgoibarko institutuko DBHtik Batxilergora arteko ikasleek osatutako 18 taldek hartu dute parte. Irabazleek esaldia herriko horma batean idatziko dute graffiti batekin eta horretarako aurrez tailer bat egingo dute.

## Oilarren gudua izango da Kultur Kafean abenduaren 11n

Rap kantarien arteko lehia, Oilarren gudua, antolatu dute Kultur Kafean abenduaren 11rako. Buruz buruko liskarrak egingo dituzte hitz errimatuz Joseba Quintasek ipinitako gaiari erantzunez hiru epaileren aurrean. Errimez gain, metrika, fonetika eta tempo eta etenaldien erabilera hartuko dituzte kontuan. Hala ere, Udalak eskatuta, hainbat gai ezingo dira aipatu edo zuzeneko kaleratzea izango dute partaideek. Izenematea Kultur Kafean bertan edo 641448748 telefono zenbakira deituta egin beharko da. Partehartzeko bost euro ordaindu behar dira eta irabazleak botea eta 100 euro jasoko ditu sarritzat.



## ▶ EULALI MORENO

IPUIN-KONTALARIA

Orain dela bost urte inguru hasi zen Eulali Moreno (Elgoibar, 1978) ipuin-kontalari lanetan, eta oraingoan pauso bat harago joan da: 'Printzesa ausarta' ipuina idatzi du. Bere ipuin-kontaketa saioetako protagonista da printzesa ausarta. Eulalik berak asmatu eta sortutako ipuina da, eta orain paperean argitaratu du. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi du, eta Txillarren eko-dendan jarri du salgai.

- AINHOA ANDONEGI -

# "Berdintasuna eta hezkidetzaz lantzen dituen ipuina da"

### ◆ 'Printzesa ausarta' ipuina kaleratu berri duzu. Nola animatu zara ipuina kontatzetik idaztera?

Bost bat urte dira ipuin hau kontatzen hasi nintzela azoketan, eta antolakuntzan aritzen den lagun batek animatu ninduen ipuina idaztera. Berari oso ipuin ona iruditzen zaio, eta gainera, asko gustatzen zaio nik nola kontatzen dudana. Konfidantza eman zidan eta interesgarria iruditu zitzaidan. Ipuina kontatu eta azokan bertan saldu nezakeela esan zidan, eta ideia ona iruditu zitzaidan.

### ◆ Zein balore lantzen dituzu ipuin honetan?

Hezkidetzaz eta berdintasunean oinarrituta dago ipuina. Neska zein mutil izan, denok eskubide berberak ditugula aldarrikatzen dut, eta emakumezkoak ez direla gizonezkoak baino gutxiago. Horrez gain, estereotipo fisikoak ere apurto nahi ditut ipuin honetan. Gorputzaren irudiari ematen zaion garrantzia salatzen dut nolabait, eta aldarrikatzen dut itxura fisikoa ez dela garrantzitsua, eta berdin duela zuria edo beltza izan, argala edo lodia, altua edo baxua... Denok berdinak garela erakusten du nire ipuinak, eta denok elkar errespetatu behar dugula. Itxura fisikoagatik ezin dela inor baztertu aldarrikatzen dut, eta gorpuzkera jakin bat edukitzeagatik ezin zaiola inori ezer ukatu. Berdintasuna, hezkidetzaz eta giza irudiaren baloreak lantzeko ipuin oso polita da. Sormena ere landu nahi izan dut eta horretarako txotxongilo batzuk sortu ditugu, azoketan gurekin ibiltzen den neska baten laguntzaz. Nik nahi dudana da umeek beraien istorio propioak sortzea txotxongiloekin. Printzesa eta armiarma sortu ditut, eta liburuarekin batera daude salgai. Telefonoak eta pantailak albo batera utzi eta gurasoek umeekin denbora gehiago pasatzeko modu oso polita da.

### ◆ Nolako izan da ipuina idazteko prozesua?

Bi urte eman ditut proiektu honenkin. Istorioa nirea da, nik sortu eta asmatutakoa, bestela ezin da argitaratu. Beraz, istorioari nolabait forma ematea eta idaztea zen egin beharrekoa, baina uste baino lan handiagoa izan da. Niretzako lehenengo aldia zen, eta hasieran nahiko galduta ibili nintzen. Ilustratzailea ere neuk topatu behar izan dut, eta ez nekien nondik hasi ere horretan. Erdi Aroko azoketan ibiltzen naiz, eta han ibiltzen den neska baten bidez lortu nuen azkenean ilustratzailea. Argitaletxea aurkitzea ere ez da erraza izan. Argitaletxe pila batera bidali nuen ipuina, argitaratzeko prest zegoen bat aurkitu nuen arte. Bi hizkuntzatan idatzi dut, Euskal Herritik kanpora ere ibiltzen naizelako ipuinak kontatzen, eta han ere ipuina saltzea interesatzen zaidalako.

### ◆ Zein kritika jaso ditu zure lanak?

Oso pozik geratu naiz emaitzarekin, eta ilusioz beterik nago proiektuarekin. Egindakoaz harro sentitzen naiz. Ipuin bat argitaratzea lortu dut, eta ez edozein ipuin, gainera. Balore garrantzitsuak lantzen dituen ipuina da, eta oso pozik nago. Harrotasuna da hitza, horixe sentitu dut. Ingurukoek ere esan didate asko gustatu zaiela, liburuak sinatzeko eskatu didate lagunek, eta oso pozik nago.

### ◆ Aurrera begira, zein proiektu dituzu eskuartean?

Datozen hilabeteetarako azoka pila bat ditut lotuta. Ipuin kontalaria izateaz gain, liburutegi ibiltari bat eramaten dut nirekin, umeengan irakurzaletasuna bultzatzeko. Liburuak trukatzeko ditugu, bat utzi eta beste bat hartu, eta liburuak herriz herri mugitzen ditut. Proiektu polita da, eta kontsumismoa gutxitzeko balio du.

## June Loidi eta Lorea Gabilondo Euskal Selektzioarekin aritu dira Emakumezkoen Nazioarteko Eskubaloi Txapelketan



**S**ei selektzio lehiatu dira Euskal Eskubaloi Federazioak antolatu duen Emakumezkoen I. Nazioarteko Eskubaloi Txapelketan, "Basque Country Cup" izenekoan: Finlandia, Luxenburgo, Kongo, Brasil, Argentina eta Euskal Selektzioa. Euskal Herrian inpaktu handiko txapelketa bat antolatuta, Euskal Selektzioa bistaratzea nahi izan du Euskadiko Eskubaloi Federazioak. Ekimen honekin Euskal Selektzioaren ofizialtasuna lortzeko urratsak eman nahi dituzte. Hortaz, eskubaloiko Euskal Selektzioak selektzio absolutu baten aurrean egiten duen debuta izan ez arren, lehen aldiz aritu dira anfitrioi gisa maila honetako nazioarteko txapelketa batean. Hiru herritan jokatu dituzte partidak: Leioan, Berangon eta Eibarren. Karmele Makazaga Euskal Eskubaloi Selektzioaren hautatzaile iritsi berriarentzat estreinaldia behar zuen izan txapelketa honek, baina koronabirusa dela-eta ezin izan du taldea zuzendu. Sanloko entrenatzaile Lorea Gabilondo elgoibartarra eta Itziar Aldaburu aritu dira Makazaga ordezkatzin, eta beraiek gidatu dute taldea nazioarteko txapelketa honetan. Bera Bera taldeko bederatzi jokalaria aritu dira selektzioarekin, eta horien artean izan da June Loidi elgoibartarra ere. Leioan jokatu zuten aurreneko partidaren 27-26ko emaitzarekin galdu zuten Finlandiaren aurka. Bigarren partidaren Argentina izan zuten aurkari, eta 21-35 galdu zuten etxekoek. Azken partida Eibarren jokatu zuten, eta Euskal Selektzioak amore eman behar izan zuen Brasilen nagusitasunaren aurrean (21-41). Panamerikar Jokoetako egungo txapeladuna da Brasil. Euskal Selektzioak aurkari izan dituen Argentina eta Brasil abenduaren 1etik 19ra Espainian jokatuko duten Munduko Eskubaloi Txapelketan lehiatuko dira.

### Bi elgoibartarrek hartu zuten parte domekan Donostiako Maratoian



Donostiako Maratoia jokatu zuten domekan, eguraldi hotz, euritsu eta haizearekin, baina iazko etena eta gero oztopo guztiei aurre egiteko prest zeuden parte hartzaileak. Antxitxikariek 42,195 kilometroko ibilbidea osatu zuten Gipuzkoako hiriburuko kale nagusietatik barrena, eta azkarrenak Kindie Dersheh (2:12:11) eta Meseret Gebre (2:27:33) etiopiarrek izan ziren, gizonezkoetan lehena eta emakumezkoetan bigarrena. Ia 1.100 saltarik amaitu zuten proba, 107 emakumek horien artean. Bi elgoibartar ere lehiatu ziren proban. Osel Sanchez Moyak bi ordu 55 minutu eta 53 segundoan amaitu zuen maratoia, eta 166. postuan sailkatu zen; 95. postua senior kategorian. Jose Luis Alonsok hiru ordu 46 segundo eta 49 segundo behar izan zituen 42 kilometroak osatzeko, eta 749. postuan sailkatu zen.





## Hodei Ezpeleta, Euskal Herriko txapeldun

**E**uskal Herriko Aizkolari Txapelketa nagusiak badu txapeldun berria: Hodei Ezpeleta. 22 urteko aizkolari mendararra hasieratik bukaerara nagusi izan zen Tolosan jokaturako finalean. Sei aizkolari lehiatu ziren azaroaren 28an Beotibar pilotalekuan jokatu zuten Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketa Nagusiaren finalean, eta Hodei Ezpeleta izan zen azkarrena lanak bukatzen, 44:40ko denborarekin amaitu zituen lanak: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko ebakitzea. Lehen aizkorakadatik hartu zuen aurrea Ezpeletak, eta gainerakoek ezin izan zioten berak ezarritako erritmoari eutsi. Amaieran, minutu eta 37 segundoko aldea atera zion bigarren egin zuen Xabier Zalduari. Alde nabarmena; eta hori, arazo txiki batzuk ere izan zituela, hala nola, aizkora puskatu edota adar pare bat atera zitzaizkiolako bere enborretan. Maila honetan jokatu duen aurreneko finalean txapela lortuta, hunkituta zegoen Ezpeleta. "Nire lehenengo finala izan da, eta txikitatik amestu dudana, gainera. Mentalizatuta egon naiz, prestaketa onak eginda eta aizkorekin gozatu dut", esan zuen txapela irabazi berrikan eginiko adierazpenetan.



## 'Txorti'-ren eta 'Iriarte'-ren omenezko herri kirol jaialdia, abenduaren 18an

Joseba Arrizabalaga *Iriarte* eta Jesus Mari Azpiazu *Txorti* omentzeko herri kirolen jaialdia antolatu dute Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Udalak abenduaren 18rako. Kalegoen plazan izango da jaialdia (euria egiten badu, lkastolan). 2020an zendu ziren *Iriarte* eta *Txorti*. Herri kirolen, eta, bereziki, idi-demen sustatzailer nagusieta-koak izan ziren Elgoibarren, 2017an zendu zen Juan Mari Urangarekin batera, eta besteak beste, Sigma Probaleku Elkarte sortu zuten eta Sigman probalekua eraikitzeko eragile nagusiak izan ziren.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan.

☎ 631 425 686

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 740 031 348

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez.

☎ 663 725 549

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez.

☎ 618 439 041

Orduka egingo nuke lan. Adinekoak zaintzeko beharrezkoak diren titulua eta esperientzia ditut. Garbiketa lanetarako ere prest egongo nintzateke.

☎ 631 229 408

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. Etxeko langile moduan edo orduka egingo nuke lan.

☎ 641 322 473

21 urteko gaztea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, tabernak edo lokalak garbitzeko, baserrian lan egiteko... Autoa daukat.

☎ 681 374 335

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan eta oporretan ere bai.

☎ 643 584 198

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan.

☎ 641 322 473

Adinekoak zaintzeko edo hoteletan lan egiteko prest nago. Bietan esperientzia handia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.

☎ 642 846 905

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest nago, eta baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere. Esperientzia handia daukat.

☎ 632 237 151

Asteburu eta jai egunetan adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 625 910 116

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Adinekoak zaintzeko titulazioa edukitzea ezinbestekoa da.

☎ 675 706 139

Lanbide Heziketako Administrazio eta Finantza ikasketak egiten ari den ikasle bati kontabilitateko eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.

☎ 646 113 085

Adineko bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Baserrian bizi gara, beraz, autoa edukitzea ezinbestekoa da. Adinekoak zaintzeko titulazioa eskatzen da.

☎ 615 721 771

Elgoibarko ileapaindegi baterako laguntzaile behar da (1. mailako ofiziala). Lanean berehala hasteko. Egun osoko lan jarduna eskaintzen da.

☎ 943 246 225

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia salgai edo alokairuan, San Roken, kiraldegi aurrean.

☎ 679 851 185

**ETXEBIZITZAK.....**

Estudioa alokatzen dut Elgoibarren, altzariekin.

☎ 669 665 252

**BESTELAKOAK.....**

90 zm-ko bi ohe salgai. Egoera onean.

☎ 943 531 648 / 669 916 148

Lepokoa galdu nuen azaroaren 12an Elgoibarren. Norbaitek topatu badu deitu dezala nire telefono zenbakira. Eskertuko diot.

☎ 680 707 639




|  |  |
|--|--|
|  <p>Consejo Asesor de Colegios de Administradores de Finanzas<br/>Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b><br/><b>rosapf@telefonica.net</b></p> | <p><b>Gure komunitatean hainbat postontzi egoera txarrean daude. Jakin nahi nuke horien aldaketa bizilagun guztion artean ordaindu behar dugun ala bizilagun bakoitza arduratu behar den bere postontziaz.</b></p> <p>Eraikuntza antolamenduari buruzko legeak honela dio postontzien funtzionaltasunari buruz, eraikuntzaren oinarriko baldintzetan: posta zerbitzuei sarbidea erraztu behar zaie horretarako baliabide egokiak jarriz, araudi zehatzak adierazitakoaren arabera. Familia bakarreko etxebizitza eta merkataritza edo industria lokal berezietako entregak sarrera ondoko edo goiko aldeko kutxatilategi batean egin ahal izango dira bide publikotik. Derrigorrez jarri beharko dira kalearen izena, zenbakia edo posta helbidearen beste datuak, baita urbanizazio edo eremuaren izena eta zenbakia ere. Azaldu daitezke era berean etxebizitzan bizi diren izen-abizenak edo izen soziala ere.</p> <p><b>Ondorioak: Kutxatilategi komuna derrigorrezkoa da; eraikuntzaren funtzionaltasunerako ohiko elementua, komunitaterako derrigorrezkoa. Postontziaren instalazioa jabekideen artean banatu ezin daitezkeen gastu orokortzat jo behar da. Izan ere, instalazioa ez da bizilagun baten edo gutxi batzuen onerako, baizik eta komunitatearen zerbitzurako, posta zerbitzuak ezarritako obligazioak betetzeko da. Beraz, komunitateak osotasunean ordaindu behar du ez postontzia egoera txarrean duten bizilagunek soilik.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b><br/><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b><br/>San Bartolome, 2</p> |
|--|--|



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Malen**, gure printzesa, zure 7. urtebetetzean. Gurasoen eta anaien Oihanen partez.



Zorionak, **Aimar**, bihar 8 urte egingo dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Familiakoen, eta bereziki, liberen partez.



Zorionak, **Aitana!** Bihar 8 urte! Ondo pasa zure urtebetetzean! Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Eire!** Óan, ó! Ondo pasa, txapelduna! Gozatu eskiatzen! Familiakoen, eta bereziki, Iratiren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Maral!** Ondo pasa datoren ostegunean! Etxeko partez, patxo handi bat.



Zorionak, **Laida**, abenduaren 9an 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxekoen eta familiakoen partez.



Zorionak, **bikote!** 6 eta 4 urte potolo bete dituzue! Muxu pila bat etxekoen partez.



**Markel**, mutil haundi! Zorionak zure 3. urtebetetzean. Ilusioz eta gogoz ospatuko dugu eguna abenduaren 7an. Muxu haundi bat.



Zorionak, **Mikel** eta **Mireia!** Zuen proiektu berriak, jo dezala goia. Bihar kanta eta dantza. Bion etxekoen partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen eguna eta bihar topera ospatuko dugu! Munduko zorion guztia opa dizuegu. Lagunen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

 **PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP**  
**OHIKO BATZAR NAGUSIA**  
Deialdia  
Eguna: 2021eko abenduaren 16an  
Ordua: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenetan  
**TELEMATIKOKI GAUZATUKO DA**

 **ARAMBURU BITXIDENDA**  
San Frantzisko, 26  
943 742 535  
Erosi zure oparia Aramburu bitxidendan eta  
**250€ko bi baleren zozketan** parte hartuko duzu  


**EXPRESS ESKAINTZAK!**  
**BOSCH WUU28T7XES**  
**ARROPA GARBIGAILUA**  
  
**669 €**  
**ATG C**  
● 9 Kg-ko karga  
● 1400 R.P.M.  
● Water Active  
● Altzairu herdoilgaitza Speed perfect  
● 10 urteko bermea - Ecosilencd Bosch motorra.  
● Arropa garbigailu erosiz gero, gabonetako oterra opari izango duzu.  
**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

### 3 BARIKUA

**18:00** 'Haurren aurrean, helduok heldu' egitasmoaren amaiera ekitaldia. Aita Agirre kulturgunean.

**19:00** Antzerkia: 'Bainuetxea'. Taupadak antzeztuko du, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

### 4 ZAPATUA

**10:00-20:00** Autozainketa: 'Brillando desde la mujer que soy'. Almaur elkar-teak antolatuta, Belen Capapek eskainiko du saioa. Lilan. 70 euro. Izena emateko: [labur.eus/empoderamientolila](http://labur.eus/empoderamientolila)

### 10 BARIKUA

**18:30** Kirol argazkien erakusketa. As-telehenetik zapatara, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**20:30** Kontzertua: Amak. Herriko Antzokian.

**23:00** Kontzertua: Joan Colomo. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

### 11 ZAPATUA

**16:00** Igeriketa jaialdia. Olaizaga kiroldegian.

**20:00** Oilar-dema: rap saioa, Kultur Kafean.

### 12 DOMEKA

**16:30** Familia antzerkia: 'Butterfly effect'. Astrolabium Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

### 16 EGUENA

**18:00** Bakarriketa: 'Luze edo motz'. Lilan.

### Zinea (Herriko Antzokian)



#### 'Paperezko hegoak'

3 barikua: 21:30

8 eguaztena: 19:00

#### 'Way down'

4 zapatua:

19:00 / 22:15

5 domeka: 19:00

6 astelehena: 21:00

#### 'Zutik'

8 eguaztena: 16:30

#### 'Cazafantasma: Más allá'

11 zapatua:

19:00 / 22:15

12 domeka: 19:00

13 astelehena: 21:00

**Badatoz Eguberriak!**

**943 743 704**  
**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

**Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.**

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

| 3 BARIKUA                | 4 ZAPATUA                    | 5 DOMEKA                   |
|--------------------------|------------------------------|----------------------------|
| Egunez<br>Barrenetxea    | Egunez<br>*Ibañez / *Arriola | Egunez<br>*Ibañez          |
| Iluntzean<br>Barrenetxea | Iluntzean<br>---             | Iluntzean<br>---           |
| 6 ASTELEHENA             | 7 MARTITZENA                 | 8 EGUAZTENA                |
| Egunez<br>Arriola        | Egunez<br>Arriola            | Egunez<br>*Fernandez       |
| Iluntzean<br>Arriola     | Iluntzean<br>Arriola         | Iluntzean<br>---           |
| 9 EGUENA                 | 10 BARIKAKUA                 | 11 ZAPATUA                 |
| Egunez<br>Yudego         | Egunez<br>*Oruesagasti       | Egunez<br>Barrenetxea      |
| Iluntzean<br>Yudego      | Iluntzean<br>Garitaonandia   | Iluntzean<br>Barrenetxea   |
| 12 DOMEKA                | 13 ASTELEHENA                | 14 MARTITZENA              |
| Egunez<br>Barrenetxea    | Egunez<br>*Ibañez            | Egunez<br>Garitaonandia    |
| Iluntzean<br>Barrenetxea | Iluntzean<br>Arriola         | Iluntzean<br>Garitaonandia |
| 15 EGUAZTENA             | 16 EGUENA                    | 17 BARIKAKUA               |
| Egunez<br>Arriola        | Egunez<br>*Fernandez         | Egunez<br>Yudego           |
| Iluntzean<br>Arriola     | Iluntzean<br>Yudego          | Iluntzean<br>Yudego        |

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00  
Arantzazu Izpizua, Ibarakurutz, 7 (Eibar)  
943 201 912

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

### KUKAI DANTZA TALDEA

ERMUAN, ABENDUAREN 17AN, 20:30EAN,  
ERMUA ANTZOKIAN

Joseba Sarrionandiak 1995. urtean euskal literaturan mugari izan den poema liburua argitaratu zuen: 'Hnuy illa nyha majah yahoo'. Bertan, 1985 eta 1995. urteen artean idatzitako olerkiak biltzen ditu eta "Hnuy Illa" dantza ikuskizuna liburutik aukeratutako poesietan oinarritzen da.



## KONTSULTATEGIA



*Duela gutxi inplante bat jarri behar izan nuen. Bigarren mailako arriskurik edo eraginik badu?*



Hortzetako inplanteak titaniozkoak dira, hezurrean integratzen den material biobateragarria (osteointegratiboa). Material horrek ez du alergiarik sortzen, ezta korrosiorik ere. Kirurgia hori egin aurretik azterketa bat egin behar da, hortzetako nerbioetan eta mentoniarretan lesiorik ez izateko (ortopantomografiarekin, eskannerrarekin), eta beste kirurgia mota bat egin behar den aztertu behar da (masailezurreko sinua altxatzea, hezurretako txertaketak).


Kirurgiaren ondoren, eremuko handitzea, hematoma, odoljarria eta mina egon daitezke: medikatzeko jarraibideak ematen dira eta jarraipena egiten da. Ondoren, inplanteari eusten dioten ehunak kaltetu daitezke (periinplantitisa), eta baita galdu ere aho-hortzen higie txarragatik (bakterio-plakaren metaketa inplantearen eremuan), tabako-kontsumoagatik (hodi-konstriktzioa eragiten du, eta horrek hezur-galera eragiten du, orbaintze-prozesua atzeratzeaz gain), edo kontrolatu gabeko gaixotasun periodontalagatik edo gaixotasun sistemoengatik ere.



**ALDAZ HORTZ KLINIKA**

San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**



I. URTEURRENA

## *Felix Garcia-Abad Fuerte*

***Ezin zaitugu ikusi  
baina gure artean jarraitzen duzu,  
baita gure bihotzetan ere.***

Etxekoak



I. URTEURRENA


## *Maria Ansola Arrieta*

*"Azkubek"*

2020ko abenduaren 1ean hil zen, 94 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduaren 5ean, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

## *Lazaro Astigarraga Loyola*

2020ko abenduaren 5ean hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduaren 5ean, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Atzo gure ondoan,  
gaur gure oroimenean,  
betirako gure bihotzetan.***

Etxekoak





Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzariaren  
Departación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro






## TicketBAI

### Etorkizunerako prestatzen.

2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

**Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.**

#### Informa zaitez

-  [gipuzkoa.eus/ticketbai](https://gipuzkoa.eus/ticketbai)
-  Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
-  943 113 000
-  [ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus](mailto:ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus)



## BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Opariak jasotzen jarraitze dugu! Eskerrik asko!



Kargagailuak



Zapia  
eta eskularria



"Emazte"  
musika cd-a



Poltsa



Sagarrekin egindako  
produktu sorta



Motxilak



1.000 erregalu  
baino gehiago...



Giltzatakoak



Ertojuak



Kamisetak



Karpetak



"Udarregi bertsolaria"  
liburuak





Produktuez osatutako  
poltsak



Ezti poteak

... eta opari  
gehiago!

 643 499 169

 943 741 626

 [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

# BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIAN ♦ Abenduak 28, asteartea ♦ 20:30ean

ANER PERITZ "EUZKITZE"  
OIHANA ARANA  
MAIALEN LUJABIO  
IGOR ELORTZA  
NEREA IBARTZABAL

Gai-jartzailea: Uxue Alberdi



SARREREN AURRE-SALMENTA:

abenduaren 9tik 23ra

12€ (10 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Elgoibarko Izarran, Aita Agirre kulturunea

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Antolatzailea:



ELGOIBARKO IZARRA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO IZARRA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ELGOIBARKO IZARRA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
VIZCAYA